

# ITSU ARGI BAT

## IPUIÑA

¿Oloa ill dozu ta  
zer egin dozu Juan?  
ain charra zineanik  
sinisten eneban.  
—¿Ez aldakizu Chomin,  
bizitza guztian  
zelan nekez nabillan  
bakarrik eskean,  
eta chakurrak bere  
askoren antzean  
zelan ez daberen gura  
pobrerik atean?  
alan zuenak bere  
aginka deust ekiñ,  
eta makilleagaz  
nairik uñ eragiñ,

chakurra jo nai eta  
jo badot ollua,  
errurik bat ez eukan  
egazti gaisua,  
¿ichuak egitea  
au al da mirari,  
argiak okerrago  
oi badabe sarri?  
¿Argiak okerrago  
zelan egiñ oi dau?  
—Onai charren errua  
eraginda pagau.  
*¿Zeiñek esango dau Juan  
eztala argia,  
begi baga ikusten  
ak badau egia?*

FELIPE ARRESE TA BEITIA.